Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko urtarrilaren 10a, ostirala — 6 — Viernes, a 10 de enero de 2020

## TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

### ZESTOAKO UDALA

*Iragarkia*

Udal Batzarrak, 2019ko urriaren 24an eginiko bilkuran, Euskara ikasteko laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza onartzeko proposamena onartu eta 2019ko azaroaren 4ko 210. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez jendaurrean egon ondoren, ez erreklamaziorik, ez iradokizunik aurkeztu ez denez, behin betiko onartuta geratu da.

Zestoa, 2019ko abenduaren 20a.—Mikel Arregi Urrutia, alkatea. (8166)

*Euskara Ikasteko dirulaguntzen araudia.*

1. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

Araudi honek euskara ikasteko eta euskarazko ikastaroak egiteko dirulaguntzak arautzen ditu.

2. ATALA

ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK

a) Zestoan erroldatuta izatea ikastaroa irauen bitartean.

b) Hamasei urte (16 urte) beteak behar dira, gutxienez.

c) Zestoako Udalean zorrik ez izatea.

d) Ondoko ikastetxeren batean matrikulatuta izatea:

— Zestoako euskaltegian.

— Zestoako euskaltegian ikasteko aukerarik ez balego, beste euskaltegi homologaturen batean.

— Barnetegi homologatu batean.

— Udako Euskal Unibertsitatean, EHUn edo beste hezkuntza zentro aitortu batean.

e) Diruz lagunduko diren ikastaro motak:

— Aurrez aurreko ikastaroak.

Autoikaskuntza ikastaroak.

— Online ikastaroak.

f) Ikasturtea amaitzea.

g) Ikastaroan gutxienez % 85eko asistentzia izatea (1).

(1) Hutsegitea justifikatutzat hartuko da honako kasu hauetan:

— Gaixotasunak eragina bada: norberaren gaixotasuna, seme-alabena, gurasoena edota bikotekidearena (medikuaren agiria ekarri beharko da).

— Lanak eragina bada (lantokiko arduradunaren agiria ekarri beharko du ikasleak).

h) Gain-finantzaketa eragin dezakeen beste dirulaguntzarik jaso ez izana. Horretarako, eskatu diren eta onartu zaizkion dirulaguntzei buruzko zinpeko aitorpena.

### AYUNTAMIENTO DE ZESTOA

*Anuncio*

Aprobado por el Pleno de este Ayuntamiento, en sesión de 24 de octubre de 2019, la Ordenanza Municipal para la regulación de las Ayudas para aprender euskara, y expuesto al público mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa núm. 210, de 4 de noviembre de 2019, sin que durante el período de información pública se hayan formulado reclamaciones ni observaciones, ha quedado definitivamente aprobado.

Zestoa, a 20 de diciembre de 2019.—El alcalde, Mikel Arregi Urrutia. (8166)

*Reglamento de subvenciones para el aprendizaje del euskera.*

SECCIÓN 1.ª

DISPOSICIONES GENERALES

El presente Reglamento regula las subvenciones para la realización de cursos de euskera y en euskara.

SECCIÓN 2.ª

REQUISITOS PARA SER BENEFICIARIO

a) Estar empadronado en Zestoa durante el curso.

b) Tener los 16 años cumplidos.

c) No tener deudas en el Ayuntamiento de Zestoa.

d) Estar matriculado en alguno de los siguientes centros:

— En el euskaltegi de Zestoa.

— Si no hubiera posibilidad de estudiar en el euskaltegi de Zestoa, en algún otro euskaltegi homologado.

— En un barnetegi homologado.

— En la UEU, UPV/EHU u otro centro educativo reconocido.

e) Tipos de cursos subvencionables:

— Cursos presenciales.

— Cursos de autoaprendizaje.

— Cursos online.

f) Finalizar el curso.

g) Asistencia mínima al 85 % en el curso (1).

(1) Se considerará justificada la falta en los siguientes casos:

— Si la enfermedad afecta: propia, de los hijos, de los padres o de la pareja (deberá aportarse el parte médico).

— Si es por razones de trabajo (el alumno deberá aportar el documento del responsable del centro de trabajo).

h) No haber recibido otras subvenciones que puedan generar sobrefinanciación. A tal efecto, declaración jurada de las subvenciones solicitadas y concedidas.

EK\CV GAO-I-2019-08166

i) Bestelako agiri argigarriak eskatu ahal izango zaizkio eskatzaileari.

Diru-laguntza jaso ahal izateko aurreko baldintza guztiak bete beharko dira.

3. ATALA

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK

3.1. Zestoan erroldatutakoak.

— Zestoako euskaltegian, matrikularen % 100.

Matrikula egin ahal izateko, Udalak zehaztutako fidantza ordaindu beharko dute euskaltegiko ikasleek. Ikastaroa bukatutakoan, ordaindutakoa osorik bueltatuko zaie % 85eko asistentzia izan eta dagokion agiria aurkezten dutenei.

% 85eko asistentzia bete ez dutenek edo ikasturtea amaitu ez dutenek fidantza berreskuratzeko aukera galtzeaz gain, galduko dute hurrengo ikasturterako diru-laguntza jasotzeko eskubidea eta matrikula osoa ordaindu beharko dute.

— Beste euskaltegi homologatu batean aurrez aurreko ikastaroak:

Langileak: matrikularen % 50.

Langabetuak eta ikasleak: matrikularen % 80.

Ikasleek jasoko duten diru-laguntzak ezingo du gainditu, Zestoako Euskaltegiko prezioen % 50 eta % 80, hurrenez hurren.

— Beste euskaltegi homologatu batean autoikaskuntza eta online ikastaroak:

Langileak: matrikularen % 50.

Langabetuak eta ikasleak: matrikularen % 80.

Ikasleek jasoko duten diru-laguntzak ezingo du gainditu, Zestoako Euskaltegiko prezioen % 50 eta % 80, hurrenez hurren.

— Barnetegia:

Langileak: matrikularen % 25.

Langabetuak eta ikasleak: matrikularen % 50.

— UEU, EHU eta bestelako ikastaroak:

Langileak: --

Langabetuak eta ikasleak: matrikularen % 50.

— Hizkuntza maila egiaztatzeko azterketen matrikulak eta ziurtagiriak ordaintzeko dirulaguntza eskatu ahalko dute Udal Gizarte Zerbitzuak baimendutakoek.

Ikasketak sortzen dituen bestelako gastuak –joan-etorriak, materiala eta abar– ez dira inolako kasuan kontuan hartuko.

Barnetegietan eta UEUn egindako ikastaroen diru-laguntzetarako gehienezko zenbatekoa zehaztuko du Udalak urteko aurrekontuetan.

b), c), d) e) eta f) baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei dirulaguntza emateko nahikoa aurrekontu-krediturik ez badago, hainbanaketa bidez esleituko da dirulaguntza eskaera guztien artean, inongo lehentasun ordenarik gabe.

HABEk, lehen eta bigarren mailak egiaztatzeko, ematen dituen diru laguntzekin bateragarria izango da, baldin eta gain-finantzaketarik ez badago.

Urte bakoitzeko, gehienez, 600 orduri dagokion diru laguntza emango zaio ikasleari.

3.2. Zestoan erroldatuta ez daudenenak:

Zestoan erroldatuta ez dauden pertsonek ez dute dirulaguntza jasotzeko eskubiderik izango. Halere, matrikulatu ahal izan-

i) Se podrá requerir al solicitante otra documentación aclaratoria.

Para ser subvencionable será necesario cumplir todos los requisitos anteriores.

SECCIÓN 3.ª

IMPORTE DE LAS SUBVENCIONES

3.1. Personas empadronadas en Zestoa.

— En el euskaltegi de Zestoa, el 100 % de la matrícula.

Para poder formalizar la matrícula, los alumnos del euskaltegi deberán abonar la fianza que determine el Ayuntamiento. Una vez finalizado el curso, se devolverá íntegramente el importe abonado a las personas que tengan una asistencia del 85 % y presenten el correspondiente documento.

Quienes no hayan cumplido el 85 % de asistencia o no hayan finalizado el curso, además de perder la posibilidad de recuperar la fianza, perderán el derecho a la subvención para el curso siguiente y deberán abonar la matrícula completa.

— Cursos presenciales en otro euskaltegi homologado:

Trabajadores: 50 % de la matrícula.

Alumnos y desempleados: 80 % de la matrícula.

La subvención que recibirán los alumnos no podrá superar el 50 % y el 80 %, respectivamente, de los precios del Euskaltegi de Zestoa.

— Cursos de autoaprendizaje y online en otro euskaltegi homologado:

Trabajadores: 50 % de la matrícula.

Alumnos y desempleados: 80 % de la matrícula.

La subvención que recibirán los alumnos no podrá superar el 50 % y el 80 %, respectivamente, de los precios del Euskaltegi de Zestoa.

— Barnetegis:

Trabajadores: 25 % de la matrícula.

Alumnos y desempleados: 50 % de la matrícula.

— Cursos UEU, EHU-UPV y otros:

Trabajadores: --

Alumnos y desempleados: 50 % de la matrícula.

— Las personas autorizadas por el Servicio Social Municipal podrán solicitar la subvención para el abono de las matrículas y certificados de los exámenes de acreditación del nivel lingüístico.

No se tendrán en cuenta en ningún caso otros gastos de desplazamiento, material, etc. que genere el estudio.

El Ayuntamiento fijará en los presupuestos anuales la cuantía máxima para las subvenciones de los cursos realizados en barnetegis y UEU.

Si no existiera crédito presupuestario suficiente para conceder la subvención a todas las solicitudes que cumplan los requisitos b), c), d) e) y f), la subvención se adjudicará por prorrateo entre todas las solicitudes sin orden de prelación.

Será compatible con las subvenciones que conceda HABE para la acreditación de los niveles primero y segundo, siempre que no exista sobrefinanciación.

Se concederá al alumno una subvención máxima de 600 horas por año.

3.2. Personas no empadronadas en Zestoa:

Las personas no empadronadas en Zestoa no tendrán derecho a subvención. No obstante, podrán matricularse en el Eus-

EK\CV GAO-I-2019-08166

go dira Zestoako Euskaltegian, eta euskaltegiaren prezio ofizialaren eta ordaintzeko eren arabera ordaindu beharko dute ikastaroa.

4. ATALA

ESKAERAK

4.1. Dokumentazioa.

a) Zestoako euskaltegian ikasten dutenek euskaltegian bertan aurkeztu beharko dute dokumentazioa.

b) Beste ikastetxeren batean ikasten dutenek dirulaguntza eskaera aurrez aurre egin ahalko dute (Udal erregistroan) ala internet bidez. Horretarako aurkeztu beharreko dokumentazioa:

— Eskaera matrikularekin batera egingo da:

a) Eskaera orria.

b) NAren fotokopia.

c) Matrikularen ordain-agiria.

d) Langabetuen kasuan, langabezia-txartela.

e) Ikasleen kasuan, ikasle-txartela edo baliokidea.

— Ikastaroaren amaieran:

f) Izandako asistentzia jasotzen duen agiria.

g) Langabetuen kasuan langabezia-txartela.

h) Eskatu diren eta onartu zaizkion dirulaguntzei buruzko zinpeko aitorpena.

4.2. Epeak.

Dirulaguntza eskatzeko epea hamabost egunekoa izango da, matrikula epea ixten denetik kontatuta. Epe hori igarota ez da eskaerarik, ezta dokumenturik, onartuko.

Ikastaroa amaitu eta 15 eguneko epean, ikastetxeko agiria aurkeztuko da. Hori egin ezean diru-laguntza bertan behera utziko da.

5. ATALA

ERABAKIAK HARTZEKO PROZEDURA

5.1. Eskaera aurkeztuta, Euskara Zerbitzuko teknikaria txostena gehituko dio eta Kultura Batzordearen esku jarriko da.

5.2. Kultura Batzordeak eskaera aztertuta eta, hala balegokio, erabaki-proposamena igorriko dio Udal Gobernu Batzordeari.

5.3. Udal Gobernu Batzordeak, Kultura Batzordearen proposamena ikusita, diru-laguntzaren emakidari buruzko erabakia hartuko du.

5.4. Eskatzaileak Gobernu Batzordearen erabakiaren kontra egoki iritzitako errekurtsoak aurkeztu ahal izango ditu legez erabakitako epe eta moduetan.

5.5. Diru-laguntza jasotzeko eskubidea, Gobernu Batzordeak ebatzi eta hurrengo egunetik aurrera izango da.

5.6. Eskatutako baldintzak beteko ez balira, edo behar bezala arrazoitutako beste edozein ziorengatik, Udalak diru-laguntzaren emakida deuseztа dezake.

6. ATALA

AZKEN XEDAPENA

Indarrik gabe gelditzen da 1994ko uztailaren 5eko «Euskara ikasteko diru-laguntzen araudia».

kaltegi de Zestoa y deberán pagar el curso en función del precio oficial y de las formas de pago del euskaltegi.

SECCIÓN 4.ª

SOLICITUDES

4.1. Documentación.

a) Quienes estudien en el euskaltegi de Zestoa deberán presentar la documentación en el propio euskaltegi.

b) Quienes estudien en otro centro podrán solicitar la subvención de forma presencial en el registro municipal, o a través de internet. Documentación a presentar al efecto:

— La solicitud se realizará junto con la matrícula:

a) Solicitud.

b) Fotocopia del DNI.

c) Justificante de pago de matrícula.

d En el caso de personas desempleadas, tarjeta de desempleo.

e) En el caso del alumnado, carnet de estudiante o equivalente.

— Al final del curso:

f) Documento acreditativo de la asistencia recibida.

g) Tarjeta de desempleo en el caso de personas desempleadas.

h) Declaración jurada de las subvenciones solicitadas y concedidas.

4.2. Plazos.

El plazo para solicitar la subvención será de quince días a contar desde el cierre del plazo de matrícula. Transcurrido dicho plazo no se admitirán solicitudes ni documentos.

En el plazo de 15 días desde la finalización del curso se presentará el documento del centro. En caso contrario, se procederá a la anulación de la subvención.

SECCIÓN 5.ª

PROCEDIMIENTO DE TOMA DE DECISIONES

5.1. Una vez presentada la solicitud, el técnico del Servicio de Euskera adjuntará el informe y se pondrá a disposición de la Comisión de Cultura.

5.2. La Comisión de Cultura estudiará la solicitud y elevará, en su caso, la propuesta de acuerdo a la Junta de Gobierno Municipal.

5.3. La Junta de Gobierno Municipal, a propuesta de la Comisión de Cultura, decidirá sobre la concesión de la subvención.

5.4. El solicitante podrá interponer los recursos que estime oportunos contra el acuerdo de la Junta de Gobierno en los plazos y formas legalmente establecidos.

5.5. El derecho a recibir la subvención tendrá lugar a partir del día siguiente al de la resolución de la Junta de Gobierno.

5.6. En caso de incumplimiento de las condiciones exigidas, o por cualquier otro motivo debidamente motivado, el Ayuntamiento podrá revocar la concesión de la subvención.

SECCIÓN 6.ª

DISPOSICIÓN FINAL

Queda derogado el «Reglamento de subvenciones para el aprendizaje del euskera» de 5 de julio de 1994.

EK\CV GAO-I-2019-08166